



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2008ko urriaren 31

95. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituen 2009tik 2012ra bitarteko aurrekontu-ekitaldietarako. Toki Administrazioako Batzordeak onetsitako irizpena (3. or.).

C SAILA:

Bestelako proposamenak:

—Lege proposamena, atxiloturik, atxikirik eta/edo poliziaren egoitzetan dauden pertsonen eskubideei buruzkoa. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (11. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Jabeldura, musikaren arloko politika orokorrari buruzkoa, jakiteko zer helburu lortu nahi diren, zer jardueraraildo dauden abian eta zein den Gobernuaren jardueraren balantzea, Foru Gobernuaren kultur politikaren testuinguru orokorrean, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak egina (14. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Donejakue bideko autobia esleitzeko, eraikitzeko eta ustiatzeko baldintza-orrien eta kontratuen ondoriozko zorra berriro dimentsiona dezan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (16. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Unibertsitate Publikoaren epe ertain eta luzeko finantzaketa berma dezan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (17. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bazterkeria delituen biktimentzako prebentzio eta laguntzarako plan integral bat abian jar dezan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (18. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da defenda dezan Nafarroako osasun zerbitzuen doakotasuna. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (19. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, mendekotasuna duen gaixo bat ospitaleko alta hartuta ohiko bizilekura, Iruñetik kanpora, eramateari buruzkoa, Ana Figueras Castellano andreak egina (20. or.).

- Galdera, 2008ko Udazkeneko Biraren programaren publizitateari buruzkoa, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (21. or.).
- Galdera, Hezkuntza Departamentuak irakasleen aintzatespena hobetzeko eginiko urratsei buruzkoa, Nekane Pérez Irazabal andreak egina (21. or.).
- Galdera, Osasun Departamentuaren aurreikuspenei buruzkoa, Lesakako osasun-etxea handitzeari eta Lodosan osasun-etxe berria eraikitzeari dagokionez, Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egina (22. or.).
- Galdera, jakiteko zer ondoriotara iritsi diren Osasun Departamentua eta Aho-hortzetako Osasunerako Unitatea, ezgaitasun psikikoa dutenentzako dentista-zerbitzuaren gastu osoa berenganatzeari dagokionez, Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egina (22. or.).
- Galdera, jakiteko zein den zerbitzu pediatrikoaren egoera Azkoiengo osasun etxean, María Chivite Navascués andreak egina (23. or.).
- Galdera, A-15 autobiarren 128. eta 128,5. kilometro-puntuetan izandako istripuei buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (23. or.).
- Galdera, Nafarroako zenbait ibaitan arrantzatzeke debekuari buruzkoa, María Gracia Iribarren Ribas andreak egina (24. or.).
- Galdera, lupus gaixotasunari buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (25. or.).
- Galdera, kanabisaren auto-laborantzaren aurkako ekintzei buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (25. or.).
- Galdera, “Laguntzak abeltzaintzako azpiegiturei. PDR. FEADER.” izeneko kontusailari buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (26. or.).
- Galdera, irakasleen plantillek Nafarroako ikastetxe guztietan duten egoerari buruzkoa, María Luisa Mangado Cortes andreak egina (27. or.).
- Galdera, 2006, 2007 eta 2008ko laguntza jarraituaren kostuari eta 2009rako aurreikuspenari buruzkoa, Ana Figueras Castellano andreak egina (27. or.).
- Galdera, eskola garraioaren zerbitzua ematen duten ikastetxe pribatu itunduei buruzkoa, María Victoria Arraiza Zorzano andreak egina (28. or.).
- Galdera, oinarritzko irakaskuntzarako testu liburua finantzatzearen gaineko Foru Legeari buruzkoa, María Victoria Arraiza Zorzano andreak egina (28. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak bi enpresa nafarrekin sinatutako hitzarmenari buruzkoa, Nafarroan Ibilgailuen Azterketa Teknikoko estazio gehiago jartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (29. or.).
- Galdera, Nafarroako haur eskoletan 2006., 2007. eta 2008. urteetan izandako aurrematrikula eskaerei eta eskainitako plaza kopuruei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (30. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak errepideetako arekak, belarrak eta sasiak garbitzeko duen jarduera-protokoloari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (31. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartze-ko funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituen 2009tik 2012ra bitarteko aurrekontu-ekitaldietarako.

TOKI ADMINISTRAZIOKO BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA

Toki Administrazioiko Batzordeak toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituen Foru Lege proiektuari buruz, 2009tik 2012ra bitarteko aurrekontu-ekitaldietarako, onetsitako irizpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut, Legebiltzarreko Erregelamenduko 137.3 artikuluan ezarritakoa betez. Proiektu hori 2008ko uztailaren 4ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko urriaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

IRIZPENA

Toki Administrazioiko Batzordeak 2008ko urriaren 28an egindako bileran onetsia

**Foru Lege proiektua,
toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituen 2009tik 2012ra bitarteko aurrekontu-ekitaldietarako**

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Foru Komunitateak eskumena du toki ogasunen arloan, Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 46. artikulua araberak.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeak 259. artikuluan xedatzen duenez, toki entitateei behar adina baliabide emanen zaizkie dituzten eskumenak erabili eta helburuak bete ditzaten; baliabide horiek toki

ogasunei buruzko foru lege batean arautuko dira, gai horrek Nafarroaren toki araubide berekia osatzen baitu –Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoko 18.2 artikulua–. Horren bidez zehaztu besterik ez da egiten askitasun finantzarioaren printzipioa, Konstituzioaren 142. artikuluan biltzen dena, bertan jartzen baitu udalek behar adina baliabide izan beharko dutela legeak beren gain uzten dituen eginkizunak betetzeko, eta horretarako beren tributuez eta Estatukoetan nahiz autonomia erkidegoetakoetan duten partaidetzaz hornituko direla.

Aurreko hori betetzeko xedez, Nafarroako toki administrazioari buruzko foru lege bereko 260. eta 261. artikuluetan ezartzen da ezen toki ogasunen baliabide-iturriak izanen direla, besteak beste, beren tributuek, Foru Komunitatekoak eta Estatu-koak.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeak, toki ogasunen baliabideei buruzko I. tituluko 123. artikuluan, zehazkiago arautzen du zenbatekoa den Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuetako partaidetza, eta ezartzen du ezen udal agintaldi bakoitzaren bigarren urteko lehenbiziko sei hilekoan Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentuari arau-proiektu bat igorriko diola, Toki Araubideko Foru Batzordeak txostena egin ondoren. Arau-proiektu horretan zehaztuko da zenbatekoa izanen den toki ogasunek Nafarroako zergetan parte hartzeko funtsa hurrengo lau aurrekontu-ekitaldietarako, eta finkatuko da funts hori banatzeko formula, justizia eta proporzionaltasun irizpideetan oinarriturik.

Foru lege honen bidez betetzen da legez ezarritakoa, esandako epean, eta eragina izanen du 2009, 2010, 2011 eta 2012ko aurrekontu-ekitaldietan, hau da, udal agintaldiaren bigarren urtearen ondoko lau ekitaldietan.

Foru lege honek ezartzen du, lehenengo eta behin, toki entitateek Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbateko orokorra, eta, ondoren, zenbateko hori handitzeko sistema, transferentzia arruntak eta bestelako laguntzak deritzen kontzeptuetan; gehikuntza hori honakoa izanen da: kontsumorako prezioen indizea Nafarroako Foru Komunitatean igo den ehunekoaren parekoa, ekainetik ekainera neurtua, gehi ehuneko bi.

Ekitaldi bakoitzari esleitutako partaidetzaren zenbatekoa hirutan banatzen da, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeko 123. artikuluko 2. idatz-zatian xedatutakoaren arabera: batetik, transferentzia arruntak; bestetik, kapital transferentziak; eta, azkenik, bestelako laguntzak.

Transferentzia arruntak, Nafarroako toki ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 123.3. artikuluan xedatutakoaren arabera, formula jakin baten bidez banatuko zaizkie udal eta kontzejuei. Banatzeko formulak zuzentasun eta proportzionaltasun irizpideak kontuan hartu behar ditu, aipatu printzipio nagusiak zehazten dituzten parametroetan oinarriturik.

Ilido horretan, foru lege honek proposatzen du transferentzia arruntan funtsaren banaketa bat, zeinak, ekitate horizontalaren printzipioa aplikatuz, funts hori partitzen baitu zuzenean toki entitate bakoitzaren gastu beharren arabera eta alderantzizko proportzioan haren ahalmen fiskalarekin, eta horrela bermatzen du gehiago jasoko duela gastu behar handiagoa eta/edo bere baliabideak eskuratzeko ahalmen txikiagoa duenak.

Banaketa-sistema hiru mailatan egituratzen da. Lehenik, Iruñeko Udalari esleitzen zaio kopuru bat. Bigarrenik, funtsaren gainerakoa beste udalerrien artean banatzen da; eta azkenik, kontzejuen partaidetza finkatzen da, bakoitzari dagokion udalerriri esleitutako kopuruaren gainean, kontzejuak dituen biztanleen kopuruaren arabera.

Iruñeko hiriak duen berezitasuna biztanleen kopuruak ematen dio; izan ere, kopuru horrek eragiten du trataera berezia, finantzaketari dagokionez, beste toki entitateen aldean.

Bigarren mailako banaketa sistemarako, udalerriri bakoitzarentzat bi indize lortu behar dira, bata, gastu beharrena, eta bestea, ahalmen fiskalarena, eta horiek zehazteko bideak taxutu dira estatistikako prozeduretan oinarritu eta Nafarroako toki entitateen sektoreko kontabilitateari buruz dagoen informazioari aplikatuta.

Sei aldagai linealki konbinatuz lortzen da gastu beharren indizea, estatistikoki frogatu baita horiek direla eraginik handiena dutenak tokiko gastu arruntan, haietako bakoitzaren gastua esplikatzen ahalmenaren bidez ponderaturik. Honakoak dira aldagai horiek: hiri lurzoru garbiaren azalera, 65 urte edo gehiagoko biztanleen kopurua, etorkinak, azalera guztira eta barreatze-indizea (kontzentrazio indizearen alderantzizkoa).

Ahalmen fiskalaren ponderazioa 0,3491 da, hori baita, finantzatu beharreko gastu arruntan gutzirakoaren gainean, indize horretan ordezkatzaren diren toki baliabide ekonomikoen baturaren portzentajea. Baliabide horiek honakoak dira: hirilurraren eta landalurraren gaineko kontribuzioak, jarduera ekonomikoen gaineko zerga, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga eta herrilurraren aprobetxamenduagatik diru-sarrerak.

Kontzejuen partaidetza, berriz, banaketako hirugarren mailak ezartzen du, udalerriri esleitutako zuzkiduran oinarrituta. Partaidetza hori kalkulatzeko, udalerriri esleitutakoa ehuneko 30ez eta kontzejuak udalerriko biztanleriaren gutzirakoarekin alderaturik duen biztanleen proportzioaz biderkatzen da. Parametro hori da kontzejuei dagokien gastuaren batez bestekoa, gaur egungo eskumenen banaketa kontuan izanik.

Banaketa formula berri honek ez du erabateko hausturarik eragin nahi egun arte indarra zuen sistemarekin, eta horregatik berme sistema bat ezarri da.

Kapital transferentzietan dagokienez, haien banaketa inbertsioen plana arautzen duen foru lege baten arabera eginen da.

Funtsaren banaketaren azken kapitulua "Beste laguntza batzuk" izenekoa da, honako kontzeptu hauek biltzen dituena: abenduaren 2ko 16/1997 Foru Legearen arabera, "Iruñearen Hiriburutza Agiria" kontzeptuagatik Iruñeko Udalari dagokion zuzkidura; gainerako toki entitateentzako zuzkidura bat, haien guztien artean banatzen dena formula orokorraren bidez, bai eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 72.2 artikuluan, interes komunak babestu eta sustatzeko osaturiko toki entitateen federazio edo elkarteentzako laguntza ekonomikoei buruz, ezarritakoa betetzeko zuzkidura ere. Eta, azkenik, beren eginkizun instituzionaletan aritzeagatik euren korporaziokideei ordainsariak, bilkura-sariak edo egindako gastuen ondoriozko bestelako gastuak ordaintzen dizkieten Nafarroako udalentzako konpentsazioa" izeneko atalari dagokiona banatuko da foru lege honetan zehazten den bezala.

I. KAPITULUA**Zuzkidura orokorra eta eguneratzea****1. artikulua.** Funtsaren zuzkidura.

2009ko ekitaldi ekonomikorako Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuetan toki entitateek duten partaidetza funtsaren zuzkidura 244.800.127 eurokoa izanen da, eta kopuru hori Nafarroako Aurrekontu Orokorretan agertuko da.

2. artikulua. Funtsaren banaketa.

Toki ogasunen Nafarroako tributuetako partaidetzen funtsa, 2009ko ekitaldirako, honela banatuko da hasiera batean:

1. Transferentzia arruntak: 161.045.317 euro.
2. Kapital transferentziak: 56.197.537 euro.
3. Bestelako laguntzak:

A) Iruñeko Udalari "Hiriburutza Agiria" delakoa-gatik: 22.021.024 euro.

B) Nafarroako udalei, korporaziokideei ordainketak egiteko: 5.168.577 euro.

C) Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari: 367.673 euro.

3. artikulua. Aurrekontuan esleitutako diru kopurua.

1. Nafarroako 2009, 2010, 2011 eta 2012ko ekitaldiei dagozkien aurrekontu orokorretako bakoitzean, agertuko da zenbatekoa den toki entitateen Nafarroako Ogasun Publikoko tributuetako partaidetzen funtsa, zeina banatuko baita aurreko artikuluan aipatzen diren epigrafeetan.

2. Transferentzia arruntak eta bestelako laguntzak xede izanik, funtsak 2010, 2011 eta 2012rako esleitutako diru kopurua zehazteko, aurreko artikuluan 2012. urterako kontzeptu horiengatik ezarritakoa hartuko da oinarritzat, eta gehituko zaio, urte horietako bakoitzerako, kontsumorako prezioen indizea Nafarroako Foru Komunitatean igotzen dena, ekainetik ekainera neurtua, gehi ehuneko bi.

3. Funtsean kapital transferentzietarako berezitatiko diru kopurua 57.602.474 euro izanen da 2010. urtean, 59.042.536 euro 2011. urtean eta 60.518.599 euro 2012. urtean, eta diru hori 13. artikuluan xedatutakoaren arabera banatuko da.

II. KAPITULUA**Transferentzia arrunten esleipena.****4. artikulua.** Iruñeko udalerrientzako esleipena.

Iruñeko Udalari 2009rako aurreko urtean jasozuen zenbatekoa esleituko zaio, betiere 2008.

urtearen aldean 2009rako gehitutako portzentajea gehituta, eta hurrengo ekitaldietan, 2010, 2011 eta 2012koetan alegia, aurreko urtean jasotako zenbatekoa esleituko zaio, gehi 3. artikuluko 2. idatz-zatian ezarritako irizpidearen arabera legokiokeena.

5. artikulua. Gainerako udalerrien artean banatu beharreko zenbatekoa.

Gainerako udalerriek 2009, 2010, 2011 eta 2012. urteetako ekitaldietan banatuko duten kopurua 2. artikuluko 1. idatz-zatian aurreikusitako kopurua izanen da, Iruñeko Udalari dagokion esleipena kendu eta gero.

6. artikulua. Gainerako udalerrientzako banaketarako formula.

Gainerako udalerrientzako banaketarako formula prozedura honi jarraikiz lortuko da:

a) Lehen fase batean, gastu premien indizea lortuko da gastu premiaren sei aldagai adierazleen konbinazio linealaren bidez, haietako bakoitzak gastu horren azalpenak emateko duen ahalmenaren arabera ponderaturik. Honakoak dira aldagai horiek: hiri lurzoru garbiaren azalera, 65 urte edo gehiagoko biztanleen kopurua, etorkinak, azalera guztira eta barreatze-indizea (kontzentrazio indizearen alderantzizkoa).

b) Bigarren fase batean, Udalen ahalmen fiskal eta ondarekoaren aldagai adierazleen konbinazio linealaren bidez lortuko da ahalmen fiskalaren indizea, bost sarrera moten arabera likidatutako esku-bideen guztizkoan haietako bakoitzak duen pisuaren arabera ponderaturik. Honako aldagai hauek erabiliko dira: hirilurraren eta landalurraren gaineko oinarri fiskalak, jarduera ekonomikoen gaineko zergarena, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergarena eta herrilurraren katastro-balioa.

c) Azkenik, gastu beharren indizeari kenduta 0,3491 faktoreak ponderatutako ahalmen fiskala, formula hau aterako da:

$$FTC = 0,9231 \times PPOB + 0,1278 \times PMA65 + 0,3355 \times PURB + 0,1341 \times PPINM + 0,0083 \times PINV-DISP + 0,0074 \times PSUP - 0,2490 \times PCTU - 0,0222 \times PCTR - 0,0760 \times PIAE - 0,0995 \times PIVTM - 0,0895 \times PVCC.$$

Azalpena:

FTC da udalerrri bakoitzaren banaketa indizea.

PPOB da udalerrri bakoitzaren biztanleria adierazten duen portzentajea, Nafarroa osoaren biztanleriarekin alderaturik, Iruña kenduta.

PURB da udalerrri bakoitzaren hiri azalera garbia adierazten duen portzentajea, Nafarroa osoaren hiri azalera osoarekin alderaturik, Iruña kendu-

ta. Hiri azalera garbia da planoaren arabera azalaren (azalera grafikoa) eta lurzati batuketaren modura hartutako azalaren (azalera alfanumerikoa) arteko aldea.

PMA65 da udalerrri bakoitzean 65 urte edo gehiago dituzten biztanleen portzentajea, Nafarroa osoan 65 urte edo gehiago dituzten biztanleen baturarekin alderaturik, Iruña kenduta.

PPOB da udalerrri bakoitzaren biztanleria adierazten duen portzentajea, Nafarroa osoaren biztanleriarekin alderaturik, Iruña kenduta.

PINVDISP da populazioaren kontzentrazio indizearen alderantzizkoa adierazten duen portzentajea, honela kalkulatu: udalerrri bateko bizigune bakoitzeko populazioak populazio osoarekin alderaturik osatzen duen portzentajeen koadratuen batura, Nafarroa (Iruña kenduta) osoko populazioaren kontzentrazioaren indizeen alderantzizkoen baturarekin alderaturik.

PSUP da udalerrri bakoitzaren azalera osoak adierazten duen portzentajea, Nafarroa osoaren azalarekin alderaturik, Iruña kenduta.

PCTU da udalerrri bakoitzaren lurralde kontribuzioaren likidazio-oinarri doitua adierazten duen portzentajea, Nafarroa osoari dagokion tributu horren likidazio-oinarri doituen baturarekin alderaturik, Iruña kenduta. Oinarriak merkatu balioen arabera doitzen dira, koefiziente zuzentzaile baten bitartez, zeinak merkatu balioekin alderaturik agertzen duten urruntasunaren arabera handitzen baititu balioak. Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Lurralde Aberastasunaren Zerbitzuak finkatuko du koefiziente zuzentzaile hori etxebizitzentzat.

PCTR da udalerrri bakoitzaren lurralde kontribuzioaren landalurrentzako likidazio-oinarria adierazten duen portzentajea, Nafarroa osoari dagokion landalurrentzako likidazio-oinarri guztien baturarekin alderaturik, Iruña kenduta.

PIAE da udalerrri bakoitzaren jardura ekonomikoaren gaineko zergaren oinarri-kuota adierazten duen portzentajea, Nafarroa osoari dagokion jardura ekonomikoaren gaineko zergaren baturarekin alderaturik, Iruña kenduta; betiere, oinarri-kuotatzat hartzen da nazio, lurralde nahiz udal esparruko kuoten batura, udal errenergia kenduta.

PIVTM da udalerrri bakoitzean trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren eskubide likidatuak adierazten dituen portzentajea, Nafarroa osoari dagokion zerga honen eskubide likidatuak guztirakoarekin alderaturik, Iruña kenduta.

PVCC da udal bakoitzean herrilurraren katastroko balioa adierazten duen portzentajea, Nafarroa osoaren baturarekin alderaturik, Iruña kenduta.

rrua osoko udalerrietako balioen guztirakoarekin alderaturik, Iruña kenduta. Beren mugapean kontzejuak dituzten udalen kasuan, kontzejuetan kokaturik ez dagoen herrilurraren balioa baizik ez da hartzen da kontuan.

7. artikulua. Gainerako udalerrientzako hasierako esleipena.

1. Aurreko artikuluan aipatzen den formula udalerrri bakoitzeko aldagaien balioei aplikatuz aterako da udal mailako banaketa indizea .

2. Udalerriren batentzat ateratzen den banaketa-indizea negatiboa baldin bada, zero balioa emanen zaio, eta berriz kalkulatuko dira gainerako udalerrientzako banaketa-indizeak, haien guztien batuketaren emaitza 1 izan dadin.

3. Banaketa-indize banatu beharreko kopurua ganean hau aplikatuko da, hori 5. artikulua arabera kalkulatu baita, udalerrri bakoitzari hasieran dagokion esleipena lortzeko.

8. artikulua. Berme klausularen aplikazioa eta behin betiko esleipenaren kalkulua udal mailan.

1. Aurreko artikuluan ezarritakoa aplikatzeari dagokionez, Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuaren parte hartzeko funtsetik udal batek transferentzia arruntetan jaso beharreko zenbatekoa, 2009ko ekitaldian, ez da izango, inola ere, 2008ko ekitaldian funtsa banatzean transferentzia arruntetan jasotakoa baino gutxiago, gehiturik, betiere, Nafarroako Foru Komunitatean kontsumorako prezioen indizea –ekinetik ekainera neurturik– igo den ehuneko. 2010, 2011 eta 2012ko ekitaldiarako bermea aurreko ekitaldikoa izanen da, irizpide bera aplikatuz eguneratua.

2. Baldin eta funtseko partaidetzatik, transferentzia arruntak kontzeptuagatik, udalerrri bati hasieran esleitutako kopurua iristen ez bada aurreko idatz-zatietan ezarritako bermera, behar diren kopuruak kenduko zaizkie, hasieran esleituak zituztenetatik, bermatutakotik goitiko kopuruak lortzen dituzten udalerriei, bakoitzari dagokion bermearekin alderaturik lortutako igoeraren arabera proportzioan.

9. artikulua. Kontzejuentzako hasierako esleipena.

Kontzejuak dituzten udalerrietan, udalerrri horiei esleitutako partaidetzatik parte bat kenduko zaie, aurreko artikuluan xedatutakoaren arabera, kontzejuen artean banatzeko. Entitate horien hasierako partaidetza kalkulatzeko, kasuan kasuko udalerrriaren partaidetza bider % 30 eginen da, eta hori berriz ere bider kontzejuko biztanleen proportzioa, udalerrriaren biztanleria osoarekin alderaturik at-

ratakoa. Udalerriaren hasierako esleipena gelditzen den kopurua izanen da.

10. artikulua. Bermearen aplikazioa eta behin betiko esleipenaren kalkulua beren mugapean kontzejuak dituzten udalerrietan.

1. Aurreko artikuluan ezarritakoa aplikatzeari dagokionez, Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuetan parte hartzeko funtsetik kontzejuak eta beren udalek transferentzia arruntetan jaso beharreko zenbatekoa, 2009ko ekitaldian, ez da izango, inola ere, 2008ko ekitaldian funtsa banatzean transferentzia arruntetan jasotakoa baino gutxiago, gehiturik, betiere, Nafarroako Foru Komunitatean kontsumorako prezioen indizea –ekainetik ekainera neurturik- igo den ehunekoak. 2010, 2011 eta 2012ko ekitaldietarako bermea aurreko ekitaldikoa izanen da, irizpide bera aplikatuz eguneratua.

2. Berme hori kontzejuentzat eta dauden udalerrientzat gauzatzeko, baldin eta banaketa formularen aplikazioarekin hartara iristen ez badira, behar diren kopuruak kenduko zaizkie udalerririk berekoak izanik bermetik goitiko kopuruak lortzen dituzten entitateei, 8. artikulua araberak haiei esleitutako kopuruetatik, bakoitzak dagokion bermetik izandako igoeraren proportzioan.

11. artikulua. Erabilitako aldagaiak.

1. Nafarroako udalerrien arteko banaketa kalkulatzeko behar diren aldagaien balioak foru lege honen eranskinean aipatzen diren iturrietatik lortuko dira. Aldagaien erreferentzia-urtea, banaketa egiten den urteko maiatzaren 1ean eskura dauden Estatistikako Institutu Nazionalaren udalerrietako biztanleriaren inguruko azkeneko datu estatistiko ofizialena izanen da. erreferentzia-urte horretako daturik ez bada, hurbileneko urtekoak hartuko dira.

2. Aurreko idatz-zati horretan xedatutakoa ukatu gabe, Trakzio mekanikoko ibilgailuen zergako datuak azken ekitaldikoko kontuen espedientetik aterako dira, zeina Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen arabera aurkeztua beharko baitu Toki Administrazioako Departamentuan, edo, bestela, ekitaldi horretako bereko aurrekontuaren likidazio espedientetik, Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeko 227.2 artikuluan eta hura garatzeko xedapenetan xedatutakoaren arabera. Aurreko hori hala ez bada, eskura dagoen azkeneko daturik berriena eguneratuko da, urteko % 10eko igoera aplikatuz. Aurreko hiru ekitaldietako daturik ez bada, Nafarroako per capita daturik handienaren arabera kalkulatu da, biztanleria aldagaia oinarritzat hartuz.

3. Kontzejuentzako banaketa kalkulatzeko, erreferentzia-urtetzat hartuko da, banaketa zein urtetan egiten den, urte horretako maiatzaren 1ean datu ofizialak eskura dauden urtea; datuak, betiere, hala Estatistikako Institutu Nazionalaren udalerrien biztanleria-estatistikakoak nola Nafarroako Estatistika Erakundearen kontzejuen biztanleria-estatistikakoak, bietan urte berari buruzkoak izanen dira.

4. Aurreko idatz-zatietan xedatutakoa ukatu gabe, kontzejuen edo udalen mugapeetan aldaketak gertatzen badira eta, aldagaien balioek haien eragina jasaten dutelako, banaketan kontuan hartu behar badira, aldagaien zenbatekoa berriro kalkulatu da, banaketa gertatzen den uneko egoera administratiboari egokitzeko, betiere egoera administratibo horri buruzko datu ofizialik ez badago.

12. artikulua. Ordainketa.

1. Toki entitateen Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuetako partaidetza funtseko diru kopuruaren ordainketa, transferentzia arruntak kontzeptuagatik esleitutakoari dagokiona, lau alditan eginen da ekitaldi bakoitzean, eta hiruhileko natural bakoitzaren lehen hamabostaldian ordainduko dira.

2. Lehenbiziko bi aldietako bakoitzean ordainduko da aurreko ekitaldian behin betikoz jasotako kopuruaren ehuneko hogeita bost.

3. Hirugarren ordainketa egin aurretik, toki entitate bakoitzarentzako urteko behin betiko esleipena kalkulatu da, eta une horretan aurreko biak osatuko dituen kopuru bat ordainduko da, esleipenaren ehuneko 75era iritsi bitarte, eta laugarren hiruhilekorako utziko da falta den zatiaren ordainketa.

4. Udalerrien eta haien mugapeko kontzejuen artean sinatutako hitzarmenik badago, eta hartan hori aipatzen bada, hitzarmenean ezarritako moduan ordainduko zaie entitate horiei, deusetan ukatu gabe hasiera batean entitate bakoitzari dagokion ekarpenaren zenbatekoa banaketa formula aplikatuz kalkulatu.

III. KAPITULUA

Kapital-transferentzien esleipena

13. artikulua. Kapital transferentzien bidezko partaidetzaren banaketa

Funtsetik Toki Azpiegituren Planerako izendatutako diru kopuruaren banaketa Toki Azpiegituren 2009-2012 Plana arautzen duen Foru Legean xedatzen denaren arabera eginen da.

IV. KAPITULUA

Bestelako laguntzen esleipena

14. artikulua. Bestelako laguntzen banaketa

Funtseko diru kopuruetan, "Bestelako laguntzak" sailaren barrenean daudenetatik "Hiriburutza Agiria" delakoagatik Iruñeko Udalari dagozkionak, araubide berezi hori ematen duen abenduaren 2ko 16/1997 Foru Legean xedatutakoaren arabera banatuko dira.

15. artikulua. Nafarroako udalentzako konpentsazioa, hautetsiei beren karguan aritzeagatik ordaindutakoaren aldera.

Kargu publiko hautatuan aritzeagatik beren korporaziokideei ordainsariak, bilkura-sariak, kalteordainak edo eginkizun publikoetan parte hartzeko eskubide konstituzionalean aritzearen ondorioz sortutako gastuengatik heldu diren bestelako paguak ordaintzen dizkieten Nafarroako udalentzako konpentsazioa, honela eginen da:

a) Baldin eta udalek alkate eta zinegotzietan ordaintzen badiete, legeria orokorrari jarraikiz, beren karguan denbora osoan edo partzialean aritzeagatik, edo ematen badizkiete bilkura-sariak, kalteordainak edo bestelako pagamenduak, kargu publikoan aritzearen ondorio zuzenak direnak, toki ogasunen Nafarroako zergetako partaidetza funtsetik ekarpen bat jasoko dute, ordain horien kostua kitatzeko.

b) Kontzeptu horregatik, udalek urtean jasotzen ahal duten gehienezko ekarpena, 2009. urterako, udala osatzen duten hautetsien kopuruaren arabera, hauteskundeetako legeria orokorrari jarraikiz, honako hau izanen da:

- Kontzeju irekiko araubideko udalak: 4.080
- 5 zinegotzi hautetsi dituzten udalerrriak: 10.508
- 7 zinegotzi hautetsi dituzten udalerrriak: 15.453
- 9 zinegotzi hautetsi dituzten udalerrriak: 18.544
- 11 zinegotzi hautetsi dituzten udalerrriak: 29.670
- 13 zinegotzi hautetsi dituzten udalerrriak: 51.304
- 17 zinegotzi hautetsi dituzten udalerrriak: 78.502
- 21 zinegotzi hautetsi dituzten udalerrriak: 112.499
- 27 zinegotzi hautetsi dituzten udalerrriak: 188.528.

c) Ekarpen horiek beren xedeari lotuak egonen dira, bakar-bakarrik erabiliko baitira alkate nahiz zinegotzietan aipatu diren kontzeptuengatik ordaintzeko, eta urtero eguneratuko dira, 3. artikuluko 2. idatz-zatian ezartzen den moduan.

d) Ordainketa behin eginen da transferentzia arrunten funts orokorraren bigarren soluzioarekin, urte bakoitzaren urtarrilean, jaso nahi duten udalek alde aurretik eskatuta, eta eskabideari ekarpen honek aurreko ekitaldian izan zuen zenbatekoa eta xedea gehitu beharko dizkiote, halakorik egin bazuten. Baldin eta hautetsiei ekitaldian ordaindutako kopuruak guztira iristen ez badira artikuluko honetan udal bakoitzarentzat ezarritako gehienezko kopurura, kontzeptu honengatik egiten den hurrengo ordainketan kenduko da kopuruaren arteko alde hori.

Udal hauteskundeak gertatzen diren ekitaldian, eta horien ondorioz hautetsien kopuruan aldatarik izan bada, ekitaldi horretan jasotako zenbatekoen erregularizazioa, eratzeko dataren artean eta urtearen azken egunaren artean dagoen epe-rako, udal bakoitzeko hautetsien kopuruaren arabera kalkulatu da.

e) Baldin eta soberakinik gertatzen bada xede hauetarako kontsignazioan, guztira likidatutako kopuruari dagokionez, soberakinak transferentzia arrunten funts orokorrari gehituko zaizkio, zeinari erantsiko baitzaizkio foru lege honetako 12. artikuluan aipatzen den urteko behin betiko esleipena kalkulatu aurretik.

f) Baldin eta defizita gertatzen bada korporaziokideen gastua konpentsatzeko esleipenean likidazioa egiteko behar den diru kopuruari dagokionez, transferentzia arrunten funts orokorretik hartuko da, foru lege honen 12. artikuluan aurreikusitako urteko esleipen behin betikoa alde aurretik kalkulaturik, edo bestela Toki Administrazio-ko Departamentuaren Aurrekontuko 4. kapituluko beste edozein kontusailetik.

16. artikulua. Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarentzako laguntza.

Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarentzat funtsaren barrenean esleituriko kopurua ordainduko da transferentzia arruntentzat foru lege honetako 12. artikuluan aipatzen den modu berean.

Xedapen gehigarri berria. 2010 eta 2011 urteetarako transferentzia arruntei dagokien zenbatekoaren ohiz kanpoko gehikuntza.

2010 eta 2011 urteetarako salbuespen gisa, transferentzia arruntei dagokien zenbatekoa 3. artikuluko 2. idatz-zatian ezarritakoarekiko handi-

tuko da: aurreko ekitaldiarekiko ehuneko bat gehituko da 2010erako, eta aurreko ekitaldiarekiko ehuneko bi, 2011rako.

Transferentzia arrunten zenbatekoaren igoera gehigarri eta ohiz kanpokoaren aurreikuspena, 2010 eta 2011 urteetarako arestiko lerrokadan ezarria eta, baliagarria izan dadin, Nafarroako urte horietarako aurrekontu orokorretan jaso behar dena, aplikatu gabe gelditu ahal izanen da, baldin eta Nafarroako Foru Komunitateko ekonomiaren nahiz ekitaldi horietako tributu bidezko dirusarreen bilakaera txarra bada.

Xedapen gehigarria. "Iruñearen Hiriburutza Agiria" ezartzen duen abenduaren 2ko 16/1997 Foru Legearen aldaketa.

"Iruñearen Hiriburutza Agiria" ezartzen duen abenduaren 2ko 16/1997 Foru Legearen 6. artikulua indargabetu da.

"Iruñearen Hiriburutza Agiria" ezartzen duen abenduaren 2ko 16/1997 Foru Legearen 7. artikulua honela geratzen da idatzirik:

"Iruñearen Hiriburutza Agiria" kontzeptuagatik Iruñeko Udalerri dagozkion zenbatekoen ordainketa lau soluziotan egingen da ekitaldi bakoitzean, eta urteko hiruhileko bakoitzaren lehen hamabostaldian gauzatuko."

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek 2009ko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra.

ERANSKINA

Banaketa formulako aldagaiak eta aplikazio iturriak

1. Udalerri bakoitzaren biztanleria. Estatistikako Institutu Nazionalak argitaratzen duen datu ofiziala, urte bakoitzeko urtarrilaren 1ekoa.

2. Kontzeju bakoitzaren biztanleria. Nafarroako Estatistika Erakundeak argitaratzen duen datu ofiziala, urte bakoitzeko urtarrilaren 1ekoa.

3. Udalerri bakoitzean 65 urte edo gehiago dituzten biztanleak. Estatistikako Institutu Nazionalak ematen duen datua, urte bakoitzeko urtarrilaren 1ekoa.

4. Hiri azalera garbia. Planoan ageri den azalera (azalera grafikoa) ken lurzatiek batuta duten azalera (azalera alfazenbakizkoa). Nafarroako Gobernuak Lurralde Aberastasunaren Zerbitzuak ematen du datu hori, eta erreferentzia-urtea udale-

rietako populazioari buruzko datuaren berbera izaten da.

5. Etorrinak. Nafarroako Estatistika Erakundeak argitaratzen duen datu ofiziala, urte bakoitzeko urtarrilaren 1ekoa.

6. Ekonomia eta Ogasun Departamentuak emandako azalera osoa

7. Populazioaren kontzentrazio indizearen aldearantzizkoa, Nafarroako Estatistika Institutuak emandako datuekin urte bakoitzerako kalkulatuak.

8. Lurralde kontribuzio doituaren hirilurraren likidazio-oinarria. Hori da udalerri bakoitzeko lurra- ren gaineko kontribuzioko hirilurraren likidazio oinarria biderkatua merkatuko balioei doitzeko koefizientearekin. Bi horiek Nafarroako Gobernuak Lurralde Aberastasunaren Zerbitzuak ematen ditu, Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistro Fiskaletik datuak harturik, udalerrien biztanleriari dagokion erreferentzia-urte bererako.

9. Udalerri bakoitzeko Lurralde kontribuzioaren landalurraren likidazio-oinarria. Nafarroako Gobernuak Lurralde Aberastasunaren Zerbitzuak ematen du, Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistro Fiskaletik datuak harturik, udalerrien biztanleriari dagokion erreferentzia-urte bererako.

10. Jarduera ekonomikoaren gaineko zergaren oinarri kuota. Nazio kuoten, lurralde kuoten, lokal finkorik gabekoen udal kuoten eta lokal finkoa dutenen udal kuoten batura da, azken horretan udal errenergua kenduta. Datu hauek Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Jarduera Ekonomikoaren Erregistroak emandakoak izanen dira.

11. Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren eskubide likidatuak. Udalerri Toki Administrazio- zioako Departamentuari igorritako kontuen likidazio- etatik aterea. Igortzen ez baditu, aplikatuko da zenbatespen bat, kalkulatu dena foru lege honetako 11. artikuluko 2. puntuan ezarritako irizpidearekin.

12. Herrilurren katastroko balioa. Hori da, Nafarroako udalerri bakoitzarentzat, herri-ondasunen eta haietatik datozenen katastroko-balioa, udalerrien biztanleriari dagokion erreferentzia-urte bererako. Beren baitan kontzejuak dituzten udalerrien kasuan, ez da sartzen kontzejuen titulartasunarekin dauden herri-ondasunak. Balio hori Nafarroako Gobernuak Lurralde Aberastasunaren Zerbitzuak ematen du, eta horretarako datuak hartzen ditu Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistro Fiskaletik.

C saila:
BESTELAKO PROPOSAMENAK

Lege proposamena, atxiloturik, atxikirik eta/edo poliziaren egoitzetan dauden pertsonen eskubideei buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 27an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz eta Espainiako Konstituzioaren 87.2 artikulua babesean, Nafarroa Bai parlamentu-taldea atxiloturik, atxikirik eta/edo poliziaren egoitzetan dauden pertsonen eskubideei Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147 eta 211. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eleunden Batzarri entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Atxiloturik, atxikirik eta/edo poliziaren egoitzetan dauden pertsonen eskubideei buruzko Lege proposamena izapidetzeko onartzea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2008ko urriaren 27an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Lege proposamena, atxiloturik, atxikirik eta/edo poliziaren egoitzetan dauden pertsonen eskubideei buruzkoa

ZIOEN AZALPENA

1. Atxiloturik, atxikirik edo poliziaren egoitzetan dauden pertsonaren giza eskubideak.

Amnistia Internazionala erakundeak behin baino gehiagotan nabarmendu du Espainia estatuko polizia-etxe eta kuarteletan tortura praktikatzen dela. 2007ko azaroan “*Sal en la herida: la*

impunidad efectiva de agentes de policía en casos de tortura y otros malos tratos” txostena aurkeztu zuen.

Txosten horretan Amnistia Internazionalak zenbait kasu ikertu ditu; Estatuak tortura eta tratu txarren inguruan sinaturik dituen nazioarteko hitzarmenak, nola Estatuak bereko arau eta berme konstituzionala azaldu ditu; eta agerian utzi du Estatuan dagoen arazo estrukturala tortura eta tratu txarren debekuaren bermea eraginkor izaten galarazten duena eta, anitz aldiz, zigorgabetasun edo inpunidadea babesten duena. Txostenean gomendio batzuk proposatu ere egin ditu Administrazio maila ezberdinetan aplikatzekoak: maila legegilean, judizialean nola administratiboan.

Torturak giza eskubideak urratu egiten ditu eta, gainera, gizarte eta gizatasunaren narriadura osoa dakar. Ezein argudiok, izan polizia-argudio izan segurtasun argudio, ezin du tortura justifikatu ez eta zuritu ere, eta, gainera, torturaren eragina ez da bortxa politikoa desagerraraztea, guztiz kontrakoak baizik.

Amnistia Internazionala erakundeak tortura, hala Espainia estatuan nola nazioartean, gainditu eta desagerraraz dadin hainbat gomendio egin ditu, behin eta berriz. Gomendio zehatzen protokolo bat ere egin du eta ekimen honen bidez protokolo hori kontuan hartua izaten hastea nahiko genuke.

Giza eskubideak bereziki bermatu behar dira, hain justu pertsona atxiloturik, atxikirik edo inkomunikaturik dagoenean, isolamendua edonolako izanda ere, baita aldi baterakoa eta mugatua delarik ere. Horrelakoetan, giza eskubideen defentsak segurtatu behar du, ez bakarrik tratu txar edo tortura kasurik ez gertatzea, baita horrelakoak gertatzeko aukerarik ez izatea ere. Hau da, tratu txarrak nahiz tortura ezinezko bihurtu behar ditu. Horixe da ekimen honen xedea.

2. Tratu txarrak eta tortura izateko aukerak eragiten duen alarma soziala.-

Behin eta berriro jartzen diren salaketek eta azkeneko urteotan torturatzeagatik eman izan diren zigor epai esanguratsuek iritzi sozialean eragin duten ustea da torturarena nahikoa arazo zabaldua dela.

Jendartearen uste hori alarma sozial izatera iritsi da. Oroitu beharrekoa dira, adibidez, Espainian hedabideek Roquetas auzia deitu zuten horretan gertatu zena: (Guardia Zibilaren kuartelera salaketa bat jartzera joan zen hiritarra hilik irten zen handik. Roquetas auziak bertze kasu batzuk ekarri dizkigu gogora) edo Joxe Arregiren eta Igor Porturen kasuak.

Zuzenbide estatu moderno eta demokratikoan, tortura nahiz tratu txarrak izateko aukera bera da errotik kendu behar dena. Aukera hori ezinezko egiten ez duten neurriak ez daitezke tortura eta tratu txarren presuntzio soziala gainditzeko pausoztat har.

Tortura eta tratu txarren susmo sozialaren kontrako borroka, batez ere Zuzenbide Estatuari eta haren zerbitzariari komeni zaie, horixe baita sinesgarritasuna izateko duten bitartekoa. Izan ere, ageri-agerikoa da honako aforismo hau: gizartearen aitzinean epaile txar batek, hamaika gaizkilek baino kalte handiagoa egiten diola justiziarri.

3. Atxiloturik edo inkomunikaturik dagoen pertsonari eginiko grabazioak une oro izan behar du guardiako epailearen, defensaren eta akusazioaren eskura.

Gaur egungo bitarteko teknikoek benetako aukera ematen dute atxilotu bakoitzak poliziaren edozein egoitzatan egiten duen egonaldia eten barik grabatzeko, sartzen den unean bertan hasi eta poliziaren egoitzatik ateratzen den unera arte grabatu ere.

Justiziak berak ezarria du, jurisdikzio zibilean, grabazioaren erabilera egokitu eta iraunkorra; oraindik berriz, jurisdikzio penalean ere berdin jokatzera falta du.

Poliziak, bere segurtasuna handitzeko xedez eta, zeharka, bere ekintzetako defentsarako ere, grabazio-bitartekoak aspalditik erabiltzen ditu. Zuzentasun eta ekitate hutsagatik ere, grabazio horien erabileraren gaur egungo estatusa gainditu beharra dago.

Poliziaren egoitzetan atxilotuak egiten duen egonaldiaren grabazioa une oro izango da guardi-

ako epailearen eskura. Grabazio hori atxilotuaren eginbide penalen atal izango da.

Atxiloturik zegoen bitartean eginiko grabazioak Prozesu penalean erabili ahal izango dituzte, hala atxilotuaren beraren defentsak, nola ministerio fiskalak eta, halakorik izanez gero, baita akusazio partikular edo pribatuek ere. Polizietako kideek ere erabili ahal izango dituzte, euren ekintzak hobeto defendatzeko xedez.

Zalantzarik ez dago, atxilotuaren eskubideen defentsan –baita justizia bera hobetzeko bidean ere– aurrera egiten den heinean, nahitaez etorriko da epaitegietan, prozesuak iraun bitartean, lekualdaketetan, eta abarretan grabatzea. Horrek guztiak ere, intimitaterako eskubideak eta horrek ezartzen dituen mugak errespetatuz, segurtasun juridikoan aurrera egitea ekarriko du. Dena dela, proposamen honen asmo progresiboak ez du aukera guztiak agortzea bilatzen, baizik eta pertsonaren eskubideen defentsan aurrera egitea.

Zalantzarik ez da, aldarazpena garai honek eskatzen duen aurrerapausoa da, eta laster giza eskubideen defentsaren lorpenen artean hau ere aipatuko da. Edonola ere, proposaturiko aldarazpena atzerazina da, Amnistia Internazionala erakundeak eginiko gomendioak kontuan izanik.

4. Proposatzen den aldaketak *habeas corpus* eskubide konstituzionalean eta eskubide hori garatzen duen legean duen eragina.

Proposatzen den lege aldaketak eragin garrantzitsua izango du *habeas corpus* eskubide konstituzionalaren garapen-aurreikuspenetan eta hura garatzen duen legean. Baina arau horien xedea, baita testua eta praktika ere mantendu egingo dira, eta proposatzen den lege aldaketak eraginkorrago baino ez ditu egingo.

5. Proposatzen den lege aldaketa.

Atxilotua izan denaren egoera batez ere Prozedura Kriminaleko Legearen 489 artikulutik 501 artikulura bitarte jasotakoan arautzen da.

Aipaturiko Prozedura Kriminaleko Legearen 489 artikulua hori, edukiz eta izaeraz, bermerako artikulua da; bertan bigarren paragrafo bat eranstea proposatzen da. Aipatutako 489 artikulua horren egungo edukia dagoenean mantenduko da, baina lehenengo paragrafo bihurtuko da ⁽¹⁾.

(1) Prozedura Kriminaleko Legearen 489 artikuluko lehenengo paragrafoak orain duen testua mantenduko du, hau da: "Ezein espainiar ez atzeritar ezingo da atxilotu, legeek ezartzen dituzten kasu eta moduetan izan ezik".

Proposatzen den lege aldaketa:

Artikulu bakarra.- Prozedura Kriminaleko Legearen 489 artikuluari bigarren paragrafo hau gehituko zaio:

«Atxiloturik dagoen pertsona oro eten gabe grabaturik izango da, poliziaren egoitzan sartzen

denetik epailearen aurrera eramana edo libre utzia izan arte. Guardiako epaileak une oro izango du grabazio hori ikusteko aukera. Atxilotutako pertsonaren grabazioa atxiloketa egiteko izan diren Zigor Eginbideen parte izango da».

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, musikaren arloko politika orokorrari buruzkoa, jakiteko zer helburu lortu nahi diren, zer jarduera-ildo dauden abian eta zein den Gobernuaren jardueraren balantzea, Foru Gobernuaren kultur politikaren testuinguru orokorrean.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko jabeldura, musikaren arloko politika orokorrari buruzkoa, jakiteko zer helburu lortu nahi diren, zer jarduera-ildo dauden abian eta zein den Gobernuaren jardueraren balantzea, Foru Gobernuaren kultur politikaren testuinguru orokorrean.

2. Jabeldura hau Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2008ko urriaren 27an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

JABELDURAREN TESTUA

Samuel Caro Sádaba, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldearen eledunaren ondokoak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 181. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, musikaren arloko kultur politika orokorrari buruzko jabeldura hau aurkeztu du:

Zioak

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeztzeari buruzko Lege Organikoaren 44. artikuluan jasotzen denez, Nafarroaren eskumen eskusiboa da, besteak beste, "Estatuarekin koordinaturik, kulturaren gainekoa" (8. idatz-zatia); "historia, arte, monumentu, arkitektura, arkeologia, eta zientzia arloko ondarearen gainekoa ere –horrek, halere, ez ditu ezertan galaraziko Estatuak ondare hori esportazioaren eta lapurretaren aurka babesteko dituen ahalmenak–" (9. idatz-zatia); "arte ederren

sustapenarekin eta irakaskuntzarekin zerikusia duten erakundeak" (11. idatz-zatia); "ikuskizunak" (15. idatz-zatia); "irakaskuntza, kultura, arte, ongintza, laguntza eta gisako izaera duten elkarteak, beren egitekoak nagusiki Nafarroan betetzen badituzte" (19. idatz-zatia).

Urtarrilaren 24ko 335/1986 Errege Dekretuaren bidez, Nafarroako Foru Komunitatera eskualdatu ziren Estatuko administrazioaren eginkizun batzuk; hain zuzen, kulturaren, kirolen eta gizarte laguntzaren eta gizarte eta kultur sustapenaren arloetakoak. Eskualdaturiko eginkizun eta zerbitzuen artean daude ondareari, artxibo eta liburategiei, musikaren sustapenari, zinearen sustapenari, sorkuntza literarioa bultzatzeari edota xede kulturala duten azpiegiturak sortzearen eta mantentze-ari buruzkoak.

Arlo horien guztien eta aipatzen ez diren beste batzuen kudeaketa eta garapena da, oro har, gobernu baten "kultur politika" deitu daitekeena, kasu honetan, Nafarroako Gobernuarena.

Kultur ekintzak edo jarduerak izan behar du zenbait planetan zehazturiko printzipio eta helburu batzuen ondorio, irizpide politiko jakin batzuekin bat datozenak, argi-iturri duten ideologiaren arabera. Soilik hitz egin daiteke kultur politikaz, kultur jarduerak eta horiek txertatzen diren proiektuak helburu haiekin bat badatoz. Kultur jardueren batuketa ez da, berez, kultur politika baten adierazle; aldiz, sarri kultur politika berariazko baten faltaren isla izaten da.

Kultur politiken esparru zabalaren barruan, formulatzeko zailenetako bat da eta, horrenbestez, ahaztuenetako bat, "musika politika" dei genezakeena, musikari adjektiborik gehitu gabe eta musika mota guztiak adierazpen artistikoaren modu desberdintzat hartuta.

Jabeldura honen xedea da foru erkidegoan egiten den musikaren arloko politika. Izan ere, politika motaren batean bistakoa bada jarduera edo programa batzuk gauzatzeko ez duela politika bat izatea bermatzen, horixe musikaren arloko politika da.

Kultur politiken xedea, musikaren arloan, bederen ondoko helburuak betetzea izan beharko luke:

1) Herritarrek musikaz gozatzeko duten aukera zabaltea eta demokratizatzea gizartearen esparru guztietan, batez ere behar handiagoa dutentan, eta publiko berriak sor daitezzen ahalbidetzea.

2) Musikaren arloko irakaskuntza profesionalen maila handia bermatzea, eta arlo horretako hezitzaile, ikertzaile, interpretatzaile eta egileentzako espezializazio eta/edo hobetze ikasketak lagundu eta sustatzea.

3) Interpretatzaile nafarren laneratzea, profesionalizazioa, egonkortasuna eta interes artistikoak erraztea.

4) Nafarroako ondare musikaren berreskuratzea, zaintza eta zabalkuntza erraztea eta sustatzea.

5) Musika garaikidearen sorkuntza eta zabalkuntza sustatzea eta bultzatzea, gaur egungo musika guztien espektro zabaletik ulertuta, musika klasikoa izan edo bestelako musikak izan.

6) Kultur industria egokia sortzea musikaren inguruan, bai zuzeneko musikari dagokionez, bai musikaren arloan gauzatzen diren enpresa-jardueren babesari dagokionez.

Nafarroako kultur politikak, musikaren arloan, badiu errealitate positibo batzuk, bistakoak direnak, hala nola:

–Musikarekin eta musikara bideratzen diren aurrekontuekin loturiko jarduera kopurua pixkanaka handitzea.

– Edukiera handiko nahiz txikiko azpiegituren hobetzea, interpretatzaileen eta ikusleen gozatzeko baldintzak hobetze aldera.

– Nafarroari loturiko talde eta interpretatzaileen hobekuntza objektiboa eta nazioarteko mailako talde eta bakarlariak Nafarroara etortzea.

–Musikaren arloko ikasketa profesionalak hobetzea eta lurraldean zehar sakabanaturiko musika eskolen kopurua handitzea, horrek ahalbidetu baitu jende gehiagok izatea aukera musika interpretazioaren munduan sartzeko.

–Musika-jarduerak gero eta gehiago sartzeko Foru Komunitateko kultur bizitzan.

Baina, errealitate positibo hauen ondoan, antzematen dira ere gabeziak, eta beharrezkoa da

horiek diagnostikatzea, lehenbizi, eta konpontzen saiatzea, ondoren:

–Ez dago zehaztuta musikak izan behar duen eginkizun kultural eta soziala kultur politika orokorraren testuinguruan.

– Ez da behin betiko konponbiderik ematen, ez azpiegiturei dagokienez ez programei dagokienez, musikaren arloko irakaskuntzen kalitate faltaren arazoari, hiru mailatan: goi mailako ikasketen mailan, ikasketa profesionalenean eta musika eskolen mailan.

– Ez dago jarduera-ildo seriorik sustatzen duenik musika era amateurrean praktikatzea.

– Ez dago jarduera-ildo seriorik sustatzen duenik izaera profesionala duten taldeak eta interpretatzaileak babestea.

– Programazioaren ehuneko 80 eta musikara bideratutako aurrekontuaren ehuneko 90 Iruñean biltzen dira.

– Garatzen den toki entitateei laguntza eta babesa emateko politika, urria bada baliabide aldetik kulturaren arlo guztietan, bereziki eskasa da musikaren arloan, emaitzei dagokienez.

–Nafarroako musika ondare historikoak oso presentzia urria du kultur ondare osoan.

– Musika arloko sorkuntza garaikidea ia desagertua da.

– Nafarroan musika berrien errealitateari bizkar emanez bizi gara, horien beharrezkoak, proiektzioa eta zabalkuntza kontuan hartu gabe.

–Musikaren arloko industria bat sortzeko aukerak ez dira batere kontuan hartzen.

–Laburbilduz, gero eta jarduera musikal gehiago daude, modu deskoordinatuan, eta horrek agerian uzten du ez dagoela Foru Komunitateko azpiegiturei, giza baliabideei, baliabide materialei eta aurrekontuetako baliabideei buruzko azterlan orokorrik, ahalbidetuko digunik denboran egoeraren diagnostiko bat artikulatzea eta, horren arabera, hurrengo urteetarako lehentasunezko jarduera-ildoak finkatzea.

Aipatutako guztia oharkabean igaro da, behar bada, Nafarroan azken hiru bosturtekoetan bizi izan duguna bezalako oparoaldi ekonomikoan, baina behar-beharrezkoa da gaur egungo krisialdian; izan ere, kultur politikak oro har eta musikak, zehazkiago, horren eragina pairatuko dute bereziki. Ezinezkoa bada baliabide gehiago izatea, beharrezkoa da ahalegin handiagoa egitea eskuragarri dauden baliabideei ahalik eta etekin handiena ateratzeko. Ezin bada gehiago inbertitu, hobeto kudeatu ahal eta behar da, bistakoa denez.

Hausnarketa horiek guztiak kontuan hartuta, komenigarria litzateke jakitea eta eztabaidatzea Gobernuaren ere bat ote datorren musikaren arloko politika orokorrari buruzko ikuspegi horrekin, zenbait ekintza abian jartze aldera, metaturiko zaborkeriekin amaitzeko, dauden arazoak konpontzeko eta abian diren ekimen egokiak bultzatzeko. Horregatik guztiarengatik:

Jabelduraren testua:

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak musikaren arloko politika orokorrari buruzko jabeldura hau aurkeztu dio Nafarroako Gobernuari, jakiteko zer helburu lortu nahi diren, zer jarduerara-ildo dauden abian eta zein den Gobernuaren jardueraren balantzea Foru Gobernuaren kultur politikaren testuinguru orokorrean.

Iruñean, 2008ko urriaren 20an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuaren premiatzen da Donejakue bideko autobia esleitzeko, eraikitzeko eta ustiatzeko baldintza-orrien eta kontratuen ondoriozko zorra berriro dimentsiona dezan.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriaren entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuaren premiatzen baita Donejakue bideko autobia esleitzeko, eraikitzeko eta ustiatzeko baldintza-orrien eta kontratuen ondoriozko zorra berriro dimentsiona dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko urriaren 27an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaleta Zabaletak eta Maiorga Ramírez Errok, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikularen eta hurrengoaren babesean, honako mozioa aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Donejakue bideko autobia "itzaleko bidesaria" sistemarekin egiteak eztabaidak eta polemikak eragin ditu behin eta berriz legebiltzar honetan.

Eztabaida hori ez da gertatzen ari zehazki bidesariaren sistemagatik beragatik, baizik eta Nafarroako Gobernuaren haren gainean egiten duen kudeaketagatik, hain zuzen ere emakida hartu duen den enpresaren aurrean interes eta diru publikoa aldeztuari dagokionez.

Obra exekutatzeko prozesuan kontzeptu edo kontusail berriak onartzei buruz eztabaida eta desadostasun handiak izan ondoren –izan ere, kontzeptu edo kontusail horiek ondorio oso kaltegarriak izan dituzte zorraren aitortzean–, oraindik ere badaude behar adina datu, balioesteko modukoak eta objektiboak, zor erreala eta hark bidesariaren kanona aplikatzerakoan urtero dituen ondorioak zalantzan jartzeko eta berriz ere aztertu behar izateko.

Obraren exekuzioari, aplikatzekoa den kanonari, ibilgailuen zenbatekoari eta 2006an eta 2007an ordaindutako kanonari buruzko behin betiko datuak ikusita, honako erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiatzen du berriz zenbatesteko autobide horren adjudikazio, eraikuntza eta ustiaketa kontratuetatik heldu diren betebeharren aplikazio zorrotzetik heldu den zor erreala, betiere zenbatespen horretarako irizpideetan lehentasuna emanez interes eta funts publikoen defentsari.

Iruñean, 2008ko urriaren 20an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Unibertsitate Publikoaren epe ertain eta luzeko finantzaketa berma dezan.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako Unibertsitate Publikoaren epe ertain eta luzeko finantzaketa berma dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko urriaren 27an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozioa aurkeztu dute, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozka dadin:

Zioak

Nafarroako Gobernuaren 2009. urterako aurrekontuen aurreproiektuari buruz komunikabideetan agertu den informazioaren arabera, Nafarroako

Unibertsitate Publikorako % 19,3ko murrizketa bat ezarri da, eta horrek berekin ekarriko du unibertsitateak aurreko ekitaldian baino 13 milioi euro gutxiago edukitzea.

Zenbateko horrek ezinezko egingen luke Nafarroako Unibertsitate Publikoak hitzartuta dauzkan proiektu eta zerbitzu batzuk abian jartzea; esate baterako, titulazio berrien egokitzea eta campusetako azpiegituren obrak, baieta ikerketa-talde batzuen finantziarioa ere. Gainera, eragina izanen du, era berean, irakasleen ordainsarrietan.

Unibertsitatea gure erkidegoko aurrerabide mailaren eta kalitate sozialaren isla garbia da. Hori dela eta, kalitatearen eta lehiakortasunaren eredu izan behar du, Nafarroako gizartea bere osotasunean ordezkatzen duen neurrian.

Horregatik guztiagatik, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak honako erabaki proposamena aurkeztu du, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du epe ertain eta luzean Nafarroako Unibertsitate Publikorako behar adinako finantziarioa berma dezan, eta konpromisoa har dezan hark diseinatzen dituen jarduera guztietarako igotzeko progresiboko finantziarioa emateko.

Iruñean, 2008ko urriaren 23an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bazterkeria delituen biktimentzako prebentzio eta laguntzarako plan integral bat abian jar dezan.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita bazterkeria delituen biktimentzako prebentzio eta laguntzarako plan integral bat abian jar dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko urriaren 27an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaletak eta Maiorga Ramírezek, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikulua eta hurrengo babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Bigarren Mundu Gerratik nazioarteko zenbait erakundek baztertua ez izateko eskubidea aitortu eta garatu izan dute. Horixe jaso zen Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean eta Nazio Batuen zenbait hitzarmenetan; esate baterako, eskubide zibil eta politikoei buruzkoan, eskubide ekonomiko sozial eta kulturaleri buruzkoan, arrazakeriagatiko bazterkeria modu guztiak deuseztatzei buruzkoan, Lanaren Nazioarteko Erakundearen 111. hitzarmenean edo Giza Eskubideen eta Oinarriko Askatasunen Babeserako Europako Hitzarmenean.

Bazterkeriak, gizabanakoen bizitza suntsitzeaz gainera, kalte egiten die, halaber, ekonomiari eta gizarte osoari, eta berdintasunaren balioarekiko mesfidantza eragiten du. Horri dagokionez, Europar Batasunak bide luzea egin du bazterkeriaren aurkako bere esparru juridiko propioa sortzen,

estatu kideetan tratu-berdintasunaren printzipioa aplika dadin.

Hori guztia gorabehera, kolektibo batzuek beren eguneroko bizitzetan pairatutako bazterketak planetan osoan banaturiko konstante bat dira, eta pertsona batzuk ezin dira beren aukerez baliatu dauzkaten ezaugarri pertsonalen ondorioz. Egoera hori, tamalez, gure erkidegoan ere ezagutzen dugu. Gure ustez, erakundeen lana oraindik ere ez da nahikoa, eta horregatik Nafarroa Bai parlamentu-taldeak ondoko erabaki-proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Bazterkeria delituen biktimentzako prebentzi-orako eta laguntzarako plan integral bat prestatu eta abian jar dezan, edozein dela ere bazterkeria horren jatorria. Plan horrek neurtzeko moduko xede eta adierazleak izanen ditu eta, nazioarteko gomendioei jarraituz, honakoak jasoko ditu:

- neurri politikoak
- neurri sozialak
- hezkuntzaren edo sentsibilizazioaren arloko neurriak.

Plana prestatzeko prozesuan, parte hartuko dute, kasuko agintariekin batera, ukitutako taldeen eta GKE-en ordezkariak, bai eta bazterkeriaren eta justizia administrazioaren gaian lan egiten duten adituek ere.

Plana, batez ere, prebentzioaren arlokoa izanen da, eta horretarako ikerketa sistematiko eta aldizkakoak egingen dira Nafarroan antzemandako bazterkeria motei buruz.

2. Arlo honetan garrantzia duten lege indardunak aztertu eta, behar izanez gero, alda ditzan, bazterkeriaren aurkako eta berdintasunezko tratua aldeko lege bat eginez. Lege horretan, berriaz debekatuko da Foruzaingoak eta Nafarroan zerbitzua ematen duten gainerako segurtasun kidego eta indarrek –Nafarroako Gobernuak eskumenak dauzkan neurrian– “arrazaz irizpideak” erabiltzea.

3. 2000/43/EE eta 2000/78/EE direktiben transposizio egokia egin dezan eta txostenak prestatu ditzan, direktiba horiek lan munduan, babes sozia-

laren arloan, hezkuntzaren arloan eta ondasunak eta zerbitzuak, etxebizitza barne, eskuratzearen arloan duten aplikazioari buruz, Europako Batzordea igortzeko, Europako arau horiek xedatzen duten moduan.

4. Aldizka argitara ditzan arlo desberdinetan (lan munduan, zenbait zerbitzu-eta eskuratzean –hezkuntza, osasuna, etxebizitza, justizia–, aisialdirako tokietara sartzerakoan eta abar) bazterkeriaren biktima diren norbanakoen eta taldeen egoerari buruzko estatistikak, horien barne direla bai partikularren bai autonomia erkidegoko zein tokiko segurtasun indarrek eginiko arrazakeria delituei

buruzko datuak (zaintzapean gertaturiko heriotzak, bortxaketak eta sexu-erasoak, indar gehiegizkoa erabiltzea eta abar), non osagai arrazistatik agertzen den, zigorrei eta biktimei eragindako kaltea konpontzeko neurriei buruzkoak eta, delitu-egileak segurtasun indarretako agenteak direnean, irekitako barne-ikerketei, diziplina-espedienteei, hartutako kautelazko neurriei eta ezarritako zehapenei buruzko datuak.

Iruñean, 2008ko urriaren 23an.

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da defenda dezan Nafarroako osasun zerbitzuaren doakotasuna.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita defenda dezan Nafarroako osasun zerbitzuaren doakotasuna.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko urriaren 27an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Nafarroako osasun zerbitzuaren doakotasuna defenda dezan premiatzeari buruzkoa, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko.

Zioen azalpena

Duela gutxi, “Desayuno con salud” izeneko jardunaldi bat egin zen Iruñean, eta bertan gure erkidegoko osasun zerbitzuaren ereduaren iraunkortasuna izan zen eztabaidagai. Foro horretan, bai Ekonomia kontseilari eta lehendakariordeak, bai Osasun kontseilariak, esan zuten ez zirela koordinaketaren sistema ezartzearen aldekoak, Nafarroako ematen diren osasun arloko zerbitzuengatik.

Gaur egun bizi duguna bezalako krisialdi ekonomiko batean, non eraginkortasunerako eta efizientziarako neurriez gain, gastu publiko jakin bati zorrotz eustea ere eztabaidatzen ari den, poztan gaitu ikusteak Nafarroako Gobernuak osasun sistemen doakotasuna defendatzen duela. Hala ere, gogorazi behar da hori ez dela beti horrela izan; izan ere, oparoaldi ekonomikoetan ere, Nafarroako Gobernuak, eta, zehatzago, bere lehendakariak, jendaurrean defendatu izan du tasa bat jartzeko aukera, Nafarroan osasun arloko zerbitzuak eskuratu ahal izateko.

Hori dela eta, gai horri buruzko irizpide ahalik eta gardenena mantentze aldera, Nafarroako osasun zerbitzuen zenbait arduradunen unean uneko irizpide edo iritzi desberdinek ez dezaten nahasmenik sortu herritarrengan zerbitzu horien doakotasunari buruz, sozialisten taldeak, beti defendatu izan duen moduan, Parlamentuak adierazpen bat egin dezan nahi dugu, eta, horretarako, erabaki proposamen hau aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du osasun zerbitzuaren doakotasuna defenda dezan.

Iruñean, 2008ko urriaren 23an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

F saila:
GALDERAK

Galdera, mendekotasuna duen gaixo bat ospitaleko alta hartuta ohiko bizilekura, Iruñetik kanpora, eramateari buruzkoa.**ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako galdera, mendekotasuna duen gaixo bat ospitaleko alta hartuta ohiko bizilekura, Iruñetik kanpora, eramateari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialan argitara dadin agintzea.

3. Osasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2008ko urriaren 27an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari Ana Figueras Castellano, Nafarroako

Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak batzordean ahoz erantzuteko.

Zioen azalpena

Arazo orokorra da gaixoei ospitaleetan senda-agiria eman eta etxera, Iruñetik kanpoko herrietara, eramateko garaian, behar adina langile egon ez eta behar bezalako zerbitzua ez dela ematen, ambulanzian pertsona bakarra joaten delako.

Galdera

Berehalako zein konponbide eman behar ditu Osasun Departamentuak senda-agiria jaso duten gaixoak beren etxeetara eramateko garaian, gaixoak Iruñetik kanpora eraman behar direnean, gaixoak mendekotasunen bat duenean eta ambulanzian doan langile bakarra gidaria denean?

Iruñean, 2008ko urriaren 20an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Galdera, 2008ko Udazkeneko Biraren programaren publizitateari buruzkoa.

PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, 2008ko Udazkeneko Biraren programaren publizitateari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2008ko urriaren 27an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Patxi Telletxea Ezkurra, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko erregelamenduan xedatutakoaren arabera, Udazkeneko Bira programa dela-eta, ondoko galdera egiten du, Nafarroako Gobernuak ahoz erantzun diezaion.

Urriaren 18an Nafarroako egunkari nagusietan Udazkeneko Bira 2008ko iragarkiak ikusi genituen:

Nafarroa osorako den kanpaina izanik, zergatik egin dira iragarki horiek gaztelera hutsez?

Iruñean, 2008ko urriaren 20a

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, Hezkuntza Departamentuak irakasleen aintzatespena hobetzeko eginiko urratsei buruzkoa.

NEKANE PÉREZ IRAZABAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nekane Pérez Irazabal andreak aurkeztutako galdera, Hezkuntza Departamentuak irakasleen aintzatespena hobetzeko eginiko urratsei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hezkuntza Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2008ko urriaren 27an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko Nekane Pérez Irazabal andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza kontseilari Pérez Nieves jaunak Batzordean ahoz erantzun dezan:

Irakasleen eginkizunaren aitorpen soziala beharrezkoa da hezkuntza hobetzeko. Hori dela eta, foru parlamentari honek ahozko galdera hau egiten du:

Zer urrats egin ditu Hezkuntza Departamentuak irakasleen aintzatespena hobetzeko? Halaber, zer ekintza egiteko asmoa du? Noiz?

Iruñean, 2008ko urriaren 22an.

Foru parlamentaria: Nekane Pérez Irazabal

Galdera, Osasun Departamentuaren aurreikuspeni buruzkoa, Lesakako osasun-etxea handitzeari eta Lodosan osasun-etxe berria eraikitzeari dagokionez.

ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE Y LAZKANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak aurkeztutako galdera, Osasun Departamentuaren aurreikuspeni buruzkoa, Lesakako osasun-etxea handitzeari eta Lodosan osasun-etxe berria eraikitzeari dagokionez.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2008ko urriaren 27an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Osasun kontseilariak Osasun Batzordean ahoz erantzun dezan:

Zer aurreikuspen ditu Osasun Departamentuak Lesakako osasun-etxea handitzeari eta Lodosan osasun-etxe berria eraikitzeari dagokionez?

Iruñean, 2008ko urriaren 22an.

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde

Galdera, jakiteko zer ondoriotara iritsi diren Osasun Departamentua eta Aho-hortzetako Osasunerako Unitatea, ezgaitasun psikikoa dutenentzako dentista-zerbitzuaren gastu osoa berenganatzeari dagokionez.

ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE Y LAZKANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak aurkeztutako galdera, jakiteko zer ondoriotara iritsi diren Osasun Departamentua eta Aho-hortzetako Osasunerako Unitatea, ezgaitasun psikikoa dutenentzako dentista-zerbitzuaren gastu osoa berenganatzeari dagokionez.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2008ko urriaren 27an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Osasun kontseilariak Osasun Batzordean ahoz erantzun dezan:

Zer azterketa egin dute eta zer ondoriotara iritsi dira Osasun Departamentua eta Aho-hortzetako Osasunerako Unitatea, ezgaitasun psikikoa dutenentzako dentista-zerbitzuaren gastu osoa berenganatzeari dagokionez?

Iruñean, 2008ko urriaren 22an.

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde

Galdera, jakiteko zein den zerbitzu pediatrikoaren egoera Azkoiengo osasun etxean.

MARÍA CHIVITE NAVASCUÉS ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea JMaría Chivite Navascués andreak aurkeztutako galdera, jakiteko zein den zerbitzu pediatrikoaren egoera Azkoiengo osasun etxean.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2008ko urriaren 27an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari María Chivite Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Osasun kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Ahozko galderaren testua

Zein da zerbitzu pediatrikoaren egoera Azkoiengo osasun etxean?

Iruñean, 2008ko urriaren 23an

Foru parlamentaria: María Chivite Navascués

Galdera, A-15 autobia 128. eta 128,5. kilometro-puntuetan izandako istripuei buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, A-15 autobia 128. eta 128,5. kilometro-puntuetan izandako istripuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko urriaren 27an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Herri Lan Zuzendaritza Nagusiaren datuen arabera, Nafarroan, 1998tik 2007ra bitartean autobideen eta autobien sarean 63 istripukoa da biktimak utzi dituzten istripuen batez bestekoa. Biktimak utzi dituzten 63 istripuetatik, 21 AP-15 autobian izan dira. Honakoa da autobia horren bilakaera biktimak utzi dituzten istripuei dagokienez:

- 1998an, 17 istripu; 1999an, 23 istripu; 2000n, 19 istripu; 2001ean, 37 istripu; 2002an, 24 istripu; 2003an, 30 istripu; 2004an, 20 istripu; 2005ean, 22 istripu; 2006an, 6 istripu; eta 2007an, 11 istripu.

AP-15ean, 1998tik 2007ra hildakoak utzi dituzten istripuei dagokienez, honakoa izan da bilakaera:

- 1998an, 1 istripu; 1999an, 5 istripu; 2000n, 7 istripu; 2001ean, 6 istripu; 2002an, 7 istripu; 2003an, 3 istripu; 2004an, 1 istripu; 2005ean, 5 istripu; 2006an, 0 istripu; eta 2007an, 2 istripu. Epe horretan, 4 istripukoa da hildakoak utzi dituzten istripuen batez bestekoa.

Honakoak dira 1998-2007 epean Nafarroako autobide eta autobietan biktimak utzi dituzten istri-

puen arrazoiak: atzetik jotzeagatik, 16 istripu –istripu guztien % 33–; bidetik ateratzeagatik, 26 istripu –istripu guztien % 53–.

Biktimarik utzi duen azken istripua 2008ko urriaren 8an izan da, A-15eko 128. kilometro-puntuan.

Kontuan izanda puntu horretan istripu bat baino gehiago izan dela, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

- A-15 autobia inauguratu zenetik, zenbat istripu izan dira autobia horretako 128. kilometro puntutik 128,5. kilometro puntura doan tartean?

- Biktimak utzi dituzten istripu horietan, zenbat hildako izan dira?

- Zein izan dira aipatu kilometro-puntuetan biktimak utzi dituzten istripuen arrazoiak?

Iruñean, 2008ko urriaren 20an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, Nafarroako zenbait ibaitan arrantzatzeko debekuari buruzkoa.

MARÍA GRACIA IRIBARREN RIBAS ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Gracia Iribarren Ribas andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako zenbait ibaitan arrantzatzeko debekuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko urriaren 27an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari M.^a Gracia Iribarren Ribas andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Landa Garape-

neko eta Ingurumeneko Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Zioak

Nafarroako Gobernuak bere garaian arrantza debekatu zuen Nafarroako ibai askotan. Neurria hartu zenetik denbora dezente iragan denez, hona galdera hauek:

- Nolako emaitzak lortu dira ibai horietan debekua ezartzearen ondorioz?

- Zein emaitza eman dituzte ibaien egoerari buruz egin diren azterlanek, eta zehazki bertako amuarrainen populazioari buruzkoek?

- Zein neurri hartu behar ditu departamentuak datorren arrantza-denboraldirako?

- Noiz eta nola jakinarazi behar dizkie arrantza-elkarteei hartutako erabakiak eta erdietsitako ondorioak?

Iruñean, 2008ko urriaren 17an

Foru parlamentaria: María Gracia Iribarren Ribas

Galdera, lupus gaixotasunari buruzkoa.

IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, lupus gaixotasunari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko urriaren 27an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoarekin bat, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osasun kontseilariari idatziz erantzun dezan:

Gaia: lupus izeneko gaixotasuna. Zure departamentutik urriaren 7an irten zen 1.526 irteera-erregistro zenbakia duen parlamentu-galderaren erantzuna osatzeko eskaria.

1. Aipatzen duzun lupus diskoide eta lupus sistemiko kasuak, soilik diagnostiko anatomopatologikoen erregistro batetik ateratakoak dira, edota anamatopatologia bidez diagnostikaturikoez gain, lupusaren irizpideak betetzeaz gain klinikak eta serologiak berretsitako kasuen erregistro batetik ateratakoak?

2. Ba al da kasuen erregistro autonomorik, kasu guztiak jasotzen dituen, hau da, irizpide klinikoaren arabera diagnostikoa dutenak, irizpide klinikerologikoen arabera dutenak, eta biopsien bidez berretsitakoak? Hala bada, zein urtetatik da abian eta zein erakunderen edo espezialitatearen mendean dago?

Iruñean, 2008ko urriaren 2an

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Galdera, kanabisaren auto-laborantzaren aurkako ekintzei buruzkoa.

IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, kanabisaren auto-laborantzaren aurkako ekintzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko urriaren 27an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Lehendakariari, Justiziarri eta Barne kontseilariari idatziz erantzun dezan.

Kanabisaren auto-laborantzaren aurkako ekintzei buruzko galdera.

• Zenbait agente ibili dira kanabisaren auto-laborantzaren aurkako kontrolatan aurtzen?

• Zein da operatibo osoari dagokion gastua? Adierazi operatibo horretarako beharrezkoa den alderdi bakoitzaren gastua (erabilitako orduak, erregaia, helikopteroaren hegaldi-orduak...)

• Zeintzuk dira salatutako pertsonak izango dituzten legezko ondorioak? Zenbat daude espetxean? Zeintzuk dira ezarriko zaizkien zigor ekonomikoak? Zenbat izan dira epailearen aurretik igaro eta erantzukizun penal orotik aske geratu direnak?

• Zenbat kilo kanabis atzeman dira? Eta zenbat kilo kanabis lehor atzeman dira azkenean?

Iruñean, 2008ko urriaren 22an

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Galdera, “Laguntzak abeltzaintzako azpiegiturei. PDR. FEADER.” izeneko kontusailari buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, “Laguntzak abeltzaintzako azpiegiturei. PDR. FEADER.” izeneko kontusailari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua aginduta koari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko urriaren 27an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuko Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentuari, idatziz erantzun diezaien.

Nafarroako 2008ko aurrekontu orokorretan, 3.500.000 euro daude “Laguntzak abeltzaintzako azpiegiturei. PDR. FEADER.” izeneko 72120-72001-7609-414304 kontusailean.

Aldiz, Landa Garapenerako eta Ingurumeneko kontseilariak emandako maiatzaren 2ko 197/2008 Foru Aginduak, abeltzaintzako toki azpiegituren hobekuntzarako laguntzak emateko 2008ko deialdia onesten duenak, 3.300.000 euroko laguntzak banatzen ditu toki entitateen artean; horietatik 1.650.000 euro aurten banatuko dira eta gainerako 1.650.000 euroak 2009ko ekitaldian banatuko dira.

Hori dela-eta, foru parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

* Zein da aurten 2008ko Nafarroako aurrekontu orokorretan onetsitako 3.500.000 eurotatik soilik 1.650.000 euro betetzearen arrazoia?

* 3.300.000 euro emanen dira 2008an eta 2009an. Zer egingen da aurtengo aurrekontuan dauden gainerako 200.000 euroekin?

* “Laguntzak abeltzaintzako azpiegiturei. PDR. FEADER.” izeneko kontusaila sartzen al da Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentuak iragarritako murrizketaren barruan?

* Nola justifikatzen du Nafarroako Gobernuak toki entitateei dirulaguntzak ukatzea aurrekontuetan dirurik ez dagoelako, maiatzaren 2ko 197/2008 Foru Aginduaren 7.8. artikuluan oinarrituta?

Iruñean, 2008ko urriaren 22an.

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, irakasleen plantillek Nafarroako ikastetxe guztietan duten egoerari buruzkoa.

MARÍA LUISA MANGADO CORTES ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa Mangado Cortes andreak aurkeztutako galdera, irakasleen plantillek Nafarroako ikastetxe guztietan duten egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko urriaren 27an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari María Luisa Mangado Cortesek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu dio Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuari, idatziz erantzun dezan:

Gaurko egunean, 2008ko urriaren 23an, zein da irakasleen plantillen egoera Nafarroako ikastetxe guztietan?

Ba al da bete gabeko posturik? Hala balitz, adierazi ikastetxea, espezialitatea eta bete gabe daraman denbora. Zehaztu lanpostu horiek hutsik egotearen arrazoiak.

Iruñean, 2008ko urriaren 23an.

Foru parlamentaria: María Luisa Mangado Cortes

Galdera, 2006, 2007 eta 2008ko laguntza jarraituaren kostuari eta 2009rako aurreikuspenari buruzkoa.

ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako galdera, 2006, 2007 eta 2008ko laguntza jarraituaren kostuari eta 2009rako aurreikuspenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko urriaren 27an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ana Figueras Castellano, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzuteko:

Zein izan da laguntza jarraituaren kostua 2006an, 2007an eta 2008an, eta zein da 2009rako aurreikusten den kostua?

Iruñean, 2008ko urriaren 23an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Galdera, eskola garraioaren zerbitzua ematen duten ikastetxe pribatu itunduei buruzkoa.

MARÍA VICTORIA ARRAIZA ZORZANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Victoria Arraiza Zorzano andreak aurkeztutako galdera, eskola garraioaren zerbitzua ematen duten ikastetxe pribatu itunduei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko urriaren 27an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari María Victoria Arraiza Zorzano, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu ditu, Hezkuntza kontseilariak idatziz erantzun dezan:

– Eskola garraioaren zerbitzua ematen duten ikastetxe pribatu itunduen zerrenda. Adierazi kasu bakoitzean hezkuntza maila bakoitzean eskolatutako zenbat ikaslek erabiltzen duten zerbitzu hori ikastetxera joateko, eta maila bakoitzean eta ikastetxe pribatu itundu bakoitzean guztira eskolatutako ikasleen zenbateko osoa.

Iruñean, 2008ko urriaren 23an

Foru parlamentaria: María Victoria Arraiza Zorzano

Galdera, oinarrizko irakaskuntzarako testu liburua finantzatzearen gaineko Foru Legeari buruzkoa.

MARÍA VICTORIA ARRAIZA ZORZANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Victoria Arraiza Zorzano andreak aurkeztutako galdera, oinarrizko irakaskuntzarako testu liburua finantzatzearen gaineko Foru Legeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko urriaren 27an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari María Victoria Arraiza Zorzano, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu ditu, Hezkuntza kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Zioak

Oinarrizko Irakaskuntzarako Testu Liburua Finantzatzeari buruzko martxoaren 25eko 6/2008 Foru Legea garatzen duen erregelamenduak prozedura desberdinak ezartzen ditu testu liburu berriak eskuratzeko.

Finantzaketa-sistema hori abian jartzea modu egokian baloratze aldera, hauxe jakin nahi dut:

Galderaren testua

– 9.3. artikuluan arauturiko txartelen sistema aukeratu duten ikastetxe publikoen zerrenda.

– 9.3. artikuluan arauturiko txartelen sistema aukeratu duten ikastetxe pribatu itunduen zerrenda.

– 9.4. artikuluan arauturiko beste prozeduraren bat aukeratu duten ikastetxe publikoen zerrenda.

– 9.4. artikuluan arauturiko beste prozeduraren bat aukeratu duten ikastetxe pribatu itunduen zerrenda.

Iruñean, 2008ko urriaren 23an

Foru parlamentaria: María Victoria Arraiza Zorzano

Galdera, Nafarroako Gobernuak bi enpresa nafarrekin sinatutako hitzarmenari buruzkoa, Nafarroan Ibilgailuen Azterketa Teknikoko estazio gehiago jartzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Nafarroako Gobernuak bi enpresa nafarrekin sinatutako hitzarmenari buruzkoa, Nafarroan Ibilgailuen Azterketa Teknikoko estazio gehiago jartzeari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko ekainaren 6ko 53. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko ekainaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Nafarroan Ibilgailuen Azterketa Teknikoko estazio gehiago jartzeari buruz. Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

Galdera: Zertan da hitzarmen horien betetzea?

2006ko ekainaren 5ean, garai hartan Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilaria zen José Javier Armendáriz jaunak eta Ibilgailuen Azterketa Teknikoaren zerbitzu publikoaren emakida zuten enpresetako kontseilari delegatu Ignacio Mosso jaunak eta José Ignacio Alonso jaunak hitzarmen bat sinatu zuten ibilgailuen azterketa teknikoko estazioen sarea handitze aldera. Hitzarmen horren bidez, Revisiones de Navarra, S.A. enpresak konpromisoa hartu zuen Ibilgailuen Azterketa Teknikoko estazio bana eraikitzeke Lizarran eta Zangozan; Lizarrako estazioa aurtengo urtarrilaren hasieran jarri zen abian, eta Zangotza-

koari dagokionez, asmoa da 2009ko abenduaren 31 baino lehen egitea.

TÜV Rheinland Navarra, S.A. enpresarekin sinaturiko hitzarmena eta gehigarria direla-eta, estazio bat eraiki da Arbizun, Sakanako eskualdeari zerbitzua eskaintzeko, eta haren inaugurazioa ekainerako programatu da; hitzarmen horretan bertan aurreikusita dago beste estazio bat egitea Oronoz-Mugairin, 2009ko abenduaren 31 baino lehen.

Oraindik ez dira aurkeztu 2009ko abenduaren 31 baino lehen eraiki beharreko estazioen erakuntza proiektuak.

Galdera: Planteatu al da Tafallan IAT estazio bat jartzeko aukera?

Gune-sarea handituz lortu nahi dena da zerbitzua herritarrari hurbiltzea; bereziki hartu dira aintzat IAT guneetatik urrun edo bereizirik dauden herrietako biztanleak, kasu batzuetan orografia delako azterketa teknikoak egitera joatean bide segurtasunerako arriskua areagotzen duen zailtasun bat.

Tafallari Azkoienen eta Noainen dauden estazioetatik ematen zaio zerbitzua, 25 eta 29 kilometrotara daudenak, hurrenez hurren; tarte horiek ez dute justifikatzen estazio berri bat sortzea, are gehiago kontuan izanik nekazaritzako ibilgailuen eta ziklomotorren zerbitzua estazio mugikorraren bidez ematen dela, egun jakin batzuetan herrira joaten dena.

Galdera: Lurralde antolamenduko zer irizpide erabili dira?

Aipaturiko hitzarmena baino lehen, IAT zerbitzua lau gunek ematen zuten, Iruña, Noain, Azkoien eta Tuteran kokaturikoek. Azkoieneko instalazioa

kontuan hartu gabe –landa izaera duena–, esan daiteke banaketa horren xedea, argi eta garbi, biztanleria gune garrantzitsuetako eskariari erantzutea dela.

Nafarroako Gobernuak, zerbitzua hobetzaerren, gaur egungo saretik urrun dauden Nafarroako herriei zerbitzu emateko gune berrien eraikuntza sustatu zuen eta, horrela, gure lurraldeko zati handi bateko nafarren lekualdatzeak murriztea lortu zuen.

Enpresa emakida-hartzaileekin sinaturiko akordio bat dela medio, gaur egungo gune-sarea handitzeko fasean dago, lau gune berri eraikiz Lizarran, Altsasun, Zangozan eta Oronoz-Mugairin. Lizarra eta Arbizuko estazioak amaituta daude eta Zangozako eta Oronoz-Mugairikoa 2009an amaituko dira.

Iruñean, 2008ko ekainaren 24an

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria:
José María Roig Aldasoro

Galdera, Nafarroako haur eskoletan 2006., 2007. eta 2008. urteetan izandako aurrematrikula eskaerei eta eskainitako plaza kopuruei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

María Luisa Mangado Cortes andreak galdera egin du Nafarroako haur eskoletan 2006., 2007. eta 2008. urteetan izandako aurrematrikula eskaerei eta eskainitako plaza kopuruei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko ekainaren 6ko 53. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Hezkuntza Departamentuak prestatzen duen ebazpenaren bidez arautzen da, urtero, ikasleak onartzeko prozedura, udal titulartasuna eta Hezkuntza Departamentuaren lankidetzaren bidezko finantzabidea duten Haur Hezkuntzako ikastetxeetan.

Ildo horretatik, 48/2008 Ebazpenaren bidez arautzen da 2008/2009 ikasturterako ikasleak onartzeko prozedura –hori Antolamenduaren, Kalitatearen eta Berrikuntzaren zuzendari nagusiak eman zuen, otsailaren 15ean–.

Gauza bera egin zen 2006/2007 eta 2007/2008 ikasturteetan, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiak emandako ebazpenen bidez. Zehazki, urtarrilaren 24ko 24/2006 Ebazpena eta otsailaren 6ko 76/2007 Ebazpena.

Arestian aipaturiko ebazpen horietan zehazten denez, toki entitateek eramanen dituzte aurrera beren zentroetan ikasleak onartzeko prozedurak. Horretarako, hautaketa eginen duen batzorde bat izendatuko dute, ondoko zereginak izanen dituen: inprimaki ofizialak prestatu eta udalerriko zentro guztietarako deialdia ebatzi, ebazpen horietan proposatzen diren onarpen irizpideak eta baremoa aplikatuz.

Beraz, udalek kudeatzen dituzte ikasleak beren udalerrietako zentroetan onartzeko prozesuak, bai eta itxaron-zerrendak ere. Gainera, eta prozedura deszentralizatua denez, familia batzuek udal ezberdinetan aurkezten dituzte haien eskaerak; beraz, eskaria egiten dutenen kopuruak ez du zertan bat etorri behar udaletan aurkeztutako eskari-kopuruarekin.

Bestalde, Hezkuntza Departamentuak ez dauka datu egiaztaturik Haur Hezkuntzako lehen zikloa eskaintzen duten ikastetxe pribatuei buruz. Haur Hezkuntzako lehen zikloa arautzen duen 28/2007 Foru Dekretuko bigarren xedapen iragankorrek 3 urteko epea ematen du, irakaskuntza hori ezartzen denetik, eskatzen diren baldintzetara egokitzeko eta baimena eskatzeko, dekretu horren IV. tituluan ezarritakoari jarraikiz.

Hezkuntza Departamentuak datuak ditu 2006/2007 eta 2007/2008 ikasturteetan ikastetxeen eta ikaspostuen eskaintzak izan duen bilakaerari buruz; izan ere, horiek dira aintzat hartzen diren datuak udalekin hitzarmenak finantzatzera-koan:

| Ikasturtea | Udalak | Ikastetxeak | Unitateak | Eskaintako ikaspostuak |
|------------|--------|-------------|-----------|------------------------|
| 2006/07 | 56 | 71 | 370 | 4.349 |
| 2007/08 | 56 | 74 | 410 | 4.777 |

Hizkuntza erodei dagokienez, Haur Hezkuntzako lehen zikloak bere hezkuntza edukiak banatzen ditu garapenaren eta esperientziaren esparru handietan; hortaz, zaila da aplikatzen hizkuntza ereduak arautzen dituen 159/1988 Foru Dekretuak horiei buruz zehazten duena. Udalek, beren udalerrietan dagoen eskarian eta beren irizpideetan

oinarriturik, aukeratzen dituzten hizkuntzetan eskaintzen dituzte ikastetxeak, unitateak eta programatutako jarduerak ere.

Iruñean, 2008ko ekainaren 23an

Hezkuntza kontseilaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

Galdera, Nafarroako Gobernuak errepideetako arekak, belarrak eta sasiak garbitzeko duen jarduera-protokoloari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Nafarroako Gobernuak errepideetako arekak, belarrak eta sasiak garbitzeko duen jarduera-protokoloari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko ekainaren 20ko 58. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du errepideetako areken garbiketari buruz. Hona hemen Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

1. Errepideetako areken belarrak eta sasiak garbitzea, hots, belar-sastrakak garbitzea, orokorrean maiatzaren lehen hamabostalditik aurrera egin ohi da, ekainaren amaieran edo uztailaren lehen astean amaitu ahal izateko. Denbora-tarte hori landarearen garapen unerik handienarekin bat etorri ohi da, neguko eurien ostean eta udaberriko lehen koloreekin batera.

Sasien garbiketarako lau traktore daude zainketa zentro bakoitzeko, gehi eskuko sega-makinarekin garbitzen duten langileak makinarentzat iristeko zailak diren lekuetan (segurtasun hesiaren azpian eta errepideetako kartelen eta seinaleen ondoan), eta gainera, errepidean egin beharreko lanen seinaleztapenarekin laguntzen duten langileak.

Errepideen zaindarien eginiko ikuskapenetik eskuratzen den informazioak aukera ematen du errepideen gaineko jarduketan lehentasunak balioesteko; izan ere, ezinezkoa da belar-sastraka guztiak aldi berean garbitzea, aintzat hartzen badugu zainketa zentro bakoitzak (zazpi dira, guztira) 600 kilometro luzerako errepideak dituela, landaretza bi aldeetara garbitzea behar dutenak. Osotara, 1.200 kilometroko jarduketa.

2.- Irurtzungo zainketa zentroaren ardurapeko errepideetako belar-sastrakak garbitzeko programari jarraituz, 2008ko ekainaren 13an amaitu ziren errepide horretako alboetako belar-sastrakak garbitzeko lanak.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren testu bateginaren 192.1. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko ekainaren 24an

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

| | |
|---|---|
| HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA | IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA |
| Urtebete 47,00 euro | |
| Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,25 » | |
| Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,40 » | |